

2020ko Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Proiektu-deialdia

“Euroeskualdeko hiritartasuna”

(kultura, hezkuntza, gazteria, kirola, eleaniztasuna)

Dirulaguntzen deialdiaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoaren, Akitania-Berria eskualdearen eta Nafarroako Foru Erkidegoaren lurraldean kokatutako bazkideen arteko lankidetzajarduerak sustatzea da.

Deialdi honen zuzkidura osoa (500 000 €) 2020rako Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen (LLET) aurrekontuaren barruan txertatuta dago.

COVID-19 krisiak eragin egoerari aurre egiteko, proiektu-deialdi honek mugazgandiko normaltasuna lagundu nahi dituzten eta mugaren hestearen ondorioak ttipitu nahi dituzten proiektuak lagundu nahi ditu.

I. SARTZEKO BALDINTZAK

1 – Onargarritasuna

1.1) Proiektuek Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen lehentasun estrategikoekin koherenteak direla frogatu beharko dute.

1.2) Proiektuek, gutxienez, **LLETa osatzen duten hiru eskualdeetako bazkide bana izan beharko dute.**

Proiektuak pertsona **juridiko edo autonomo eta enpresaburu indibidual** publiko edo pribatuak aurkeztu beharko dituzte eta eskualdeen arteko izaeraren intentsitatea eta lankidetzaren errealitatea frogatu beharko dute. **Proiektuburua pertsona juridiko pribatu edo publikoa izan beharko da.** Ez dira onartuko hiru lurraldeetan dagoen pertsona juridiko beretik datozen bazkideen proiekturik (erakunde nagusi baten eta bigarren mailako erakunde baten bidez: egoitza soziala eta ordezkaritza, enpresa eta filiala, eta abar)

1.3) Aurreko urteetako deialdietan hautatuak izan diren hautagaiek aurkeztutako proiektuek modu argian identifikatutako **izaera berritzailea** izan beharko dute.

1.4) Proiektuek gainerako finantzaketa-iturriak adierazi beharko dituzte, nola eskatutakoak hala lortutakoak.

1.5) Covid-19 krisia dela eta, aurrez-aurre aurreikusitako jarduerak jarduera birtualak bilaka daitezke, proiektuaren aukeraketan eragin gabe.

2 - Euroeskualdeko hiritartasunari buruzko proiektuen izaera

Proiektuek honako lehentasun hauek izan beharko dituzte:

- **Kultura:** sortzaile profesionalen kopurua handitzea sektore eta jarduera desberdinak indartzeko xedez, proiektu berritzaileak sortzea (teknologiarekin zerikusia dutenak edo ez), sormena sustatuko duten baldintzak indartuz, eta herritarren artean kulturarekiko eta sormenarekiko jarrera harkor baikorra eta interes handiagoa sustatuz.
- **Hezkuntza - Gazteria:** elkarrekiko ezagutza eta Euroeskualdeko gazteriaren harremana ahalbidetzea.
- **Kirola:** Euroeskualdeko herritartasuna modu nabarmenean bultzatzen duen elementu gisa hartuta.
- **Eleaniztasuna:** hizkuntzaren bidez konektatuta dauden Euroeskualdeko herritarrak lortzea, elkarren artean komunikatzeko eta elkar ezagutzeko gaitasuna izango dutenak. Euroeskualdeko hizkuntzen ezagutza sustatzea (euskara, gaztelania, frantsesa, okzitania).

Proiektuen gaien **adibideak:**

- **Kultura - sorkuntza babestea**
 - ✓ Euroeskualdeko kultur-eragileen artean artelanak sortzea eta zabaltzea,
 - ✓ artisten mugikortasuna eta egonaldiak,
 - ✓ sormenaren industriaren esparruko lankidetzak.

- **Hezkuntza - Gazteria:**

- ✓ mugikortasuna eta Euroeskualdeko gazteen ikasle-trukeak,
- ✓ sentsibilizazioa hezkuntzaren bidez

- **Kirola:**

- ✓ kirolaren sustapena
- ✓ tokiko kirolak
- ✓ kirolaren gizarte- eta hezkuntza-dimentsioak garatzea (kirola eta osasuna...).

- **Eleaniztasuna:**

- ✓ Euroeskualdeko hizkuntzan erabilera eta ezagutza garatzea, Euroeskualdearen lurraldean hizkuntza-trukeak sustatuz.

3 - Hautaketa-irizpideak

Proiektuek honako irizpide hauek bete beharko dituzte (20 puntu):

Proiektuaren ekintza-planaren egokitasuna: ekintzak egokiak izan beharko dute proiektuaren xedearekiko, ekintzen bideragarritasuna, ekintzen entregagaiak, aurreikusitako ekintzen egutegia, aurreikusitako emaitzen zaera iraunkorra.	4 puntu
Mugazgaindiko normaltasuna laguntzearen eta mugaren hestearen ondorioak ttipitzearen helburuekin egokitzapena.	2 puntu
Lankidetzaren egokitasuna: bazkideen arteko osagarritasuna, bazkideek proiektua garatzeko duten gaitasuna	4 puntu
Aurrekontuaren egokitasuna ekintza-planarekiko: aurrekontuaren egokitasuna aurreikusitako ekintzekiko, plan finantzarioaren koherentzia, bazkideen banaketaren egokitasuna proiektuaren ezarpenari dagokionez	3 puntu
Proiektuaren mugaz gaindiko dimentsioa: proiektuaren helburuetarako mugaz gaindiko lankidetzaren beharra, mugaz gaindiko lankidetzaren balio erantsia	3 puntu

Euroeskualdearen plan estrategikoa egikaritzeari ekarpen bat egitea: proiektuaren egokitasuna Euroeskualdean plan estrategikoan aurreikusitako ekintzekiko, plan estrategikoari egiten dion ekarpena	4 puntu
--	---------

Euroeskualdeak onartutako proiektuen kudeaketan zeharkako printzipioak (garapen jasangarriaren, aukera-berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioak) betetzen direla behatuko du.

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak ez du finantzatuko:

- Federatutako kirol-probarik (zirkuitu ofizialak)
- Soilik helburu turistikoak dituen jarduerarik
- Pertsona fisiko batek burututako proiekturik

Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak lehen hautaketan aukeratutako proiektuen sustatzaileekin elkarriketak burutzeko eskubidea izango du, informazio gehiago eskuratu ahal izateko.

4 - Txostenak entregatzea

Arestian aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak **2020ko uztailaren 24eko 12:00ak** baino lehen bidali beharko dituzte euren txostenak (atxiki beharreko dokumentuekin batera) beteta, **modu elektronikoan**.

Inprimaki elektronikoa bete ostean, fedea ematen duen hartu-agiri bat jasoko dute posta elektronikoko bidez.

Ez da onartuko paperean ekarritako proiekturik.

Osatugabeko txostenek 7 eguneko epea izango dute, jakinarazpenetik zenbatzen hasita, akatsak zuzentzeko. Behar den dokumentazioa adierazitako epean aurkezten ez bada, proiektua baztertuta geratuko da automatikoki. **Entregatzeko unean bazkideen sinadurarik ez duten txostenek (konpromiso agiria eta finantzaketa-plana) ez dute epe gehigarri hori izango.**

5 - Aurkezpena

Proiektuak telematikoki aurkeztuko dira Euroeskualdearen webgunean (www.euroregion-naen.eu), inprimaki elektronikoa bat betez eta honako dokumentu hauek atxikiz:

- Proiektuaren fitxa, **Euroeskualdearen hiru laneko hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta frantsesa)**
- Bazkideek sinatutako konpromiso agiria (izenpedura elektronikoa edo skaneatua).
- Bazkideek sinatutako finantzaketa-plana (izenpedura elektronikoa edo skaneatua).

Bidalitako dokumentuak beren oinarritzko formatuan kontserbatuak izan beharko dira eta Euroeskualdeko agenteei esku ezarriak galdera egiten balitz.

Proiektua hautatua izanez gero, bazkideek honako dokumentu hauek ekarri beharko dituzte:

- Kontu-korrontearen ziurtagiria, nazioarteko formatuan (IBAN eta BIC),
- Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

II. DIRULAGUNTZEN ESLEIPENA

1 - Onuradunak

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa dirulaguntzen deialdian parte hartu dezaketen onuradunak pertsona juridikoak edota autonomo eta enpresaburu indibidualak dira, bai publikoak bai pribatuak, beste pertsona juridikoak edota autonomo eta enpresaburu indibidual batzuekin, nola publikoak hala pribatuak, eskualde arteko lankidetzak proiektuak burutzen dituztenak, Akitania Berrian, EAEn edota Nafarroako Foru Erkidegoan kokatuta daudenak, eta Akitania-Berria Euskadi Nafarroa deialdiko dirulaguntza bat jasotzeko eskaera aurkeztu dutenak.

Onuradunen egoitza soziala edo egoitza Akitania-Berrian, EAEn edo Nafarroako Foru Erkidegoan egon beharko da.

2 – Kasu zehatzak

Deialdi honek ez ditu ordezkatu nahi euren esku-hartzeen esparruan Akitania Berriko Eskualde Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak dituzten finantzaketa-iturriak. Dena den, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa dirulaguntzek aintzat hartu ahalko dituzte lankidetzak-ekintzaren eskualde arteko izaerarekin zuzenean lotuta dauden zenbait gastu.

Proiektu batek deialdi honetako dirulaguntza bat jasotzeaz gain Akitania Berriko Eskualde Kontseiluaren, Eusko Jaurlaritzaren edo Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat jaso ahalko du, edo guztiena, dirulaguntzen-gailu klasikoak erabiliz, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- dirulaguntza horien baturak ezingo du proiektuaren koste osoaren % 80 baino handiagoa izan
- proiektuaren izaerak, xedeez eta finantzaketak dirulaguntzen metaketa justifikatu behar dute..-

3 – Dirulaguntzen eta diruz lagundu daitezkeen gastuen ehunekoak

Deialdi honen esparruan, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak emandako dirulaguntzen gehienezko zenbatekoa proiektuaren kostu osoaren % 50ra heldu daiteke. BEZa jasaten ez duten egituren kasuan, dirulaguntza horien partaidetza BEZa barne duela kalkulatu da, baina onuraduna konprometitu beharko da ez duela BEZaren kopuru hori berreskuratuko dirulaguntza esleitzen den unetik hasita hiru urteko epean. Bazkide desberdinek proiektu partekatua burutzerakoan sortutako gastu guztiez osatuta egongo da kostu osoa, eta horiek derrigorrez justifikatu beharko dituzte proiektua egikaritzeko erabilitako ekarpen finantzarioak (***autofinantzazioa edo beste aldi bereko finantzaketa publiko edo pribatuak***).

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Exekutiboak, LLETaren estatutuari jarraiki, finantzaketaren ehunekoak aldatzeko eskubidea gordetzen du, **batik bat finantzaketa publikoaren esku-hartzea egonez gero**, eta baita indarrean den araudiaren arabera **proiektuaren barruan diruz lagundu daitezkeen gastuen oinarria finkatzeko eskubidea** ere.

Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Prestakuntza gastuak (proiektu osoaren gastuen %10a gehienez)
- Langileen gastuak
- Proiektuaren komunikazio gastuak
- Lekualdaketa gastuak
- Kanpoko zerbitzuen gastuak

Proiektuak gutxienez % 20ko autofinantzaketa izan beharko du

4 - Erabakia

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen funtzionamendu-arauei jarraiki, dirulaguntza esleitzeko erabakia Batzorde Exekutiboak hartuko du, txostenak bideratzeaz arduratzen diren Batzorde Tekniko Mistoei argibideak eskatu ostean. Eskatzaileei jakinarazpen ofizial bat helaraziko zaie.

Txostenak aukeratzeko unean, gaien arteko oreka bermatuko du Euroeskualdeak. Izapideen prozeduraren ostean lortutako nota kontuan izanez egingo da hautaketa.

Euroeskualdearen Batzorde Exekutiboak proiektuen aurrekontuak doitzeko aukera gordetzen du, horiek proiektuen deialdiaren aurrekontu osoarekin bat etor daitezen, betiere bere bideragarritasuna eta egikaritzea zainduz:

- 10.000 € azpiko aurrekontua duten lankidetzen kasuan (zergak barne), %6 murriztu ahalko dira
- 10.000 € eta 20.000€ arteko aurrekontua duten lankidetzen kasuan (zergak barne), %8 murriztu ahalko dira
- 20.000 € eta 40.000€ arteko aurrekontua duten lankidetzen kasuan (zergak barne), %10 murriztu ahalko dira
- 40.000 €-tik gorako aurrekontua duten lankidetzen kasuan (zergak barne), %12 murriztu ahalko dira

III . PROIEKTUEN EGIKARITZEA

1 – Egikaritzeko epea

Proiektuen iraupena ezingo da **12 hilabete** baino luzeagoa izan, hautaketa jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

Ez dira aintzat hartuko hautaketaren aurretik egikaritu eta amaitu diren proiektuak. Hori dela eta, berantengatik 2020ko urtarrilaren 1ean hasiak ziren proiektuek dirulaguntza bat jasotzen ahalko dute.

2 – Xedapen finantzarioak

2.1) Esleitutako dirulaguntzak Akitania-Berria Euskadi Nafarroa deialdiaren barruan txertatzen dira. LLETaren Batzorde Exekutiboak onartutako eragiketaren finantzaketa-planari jarraiki banatuko da bazkideen artean, zeina dirulaguntza esleitzeko hitzarmenean xedatuta egon beharko den.

2.2) Dirulaguntzen ordainketak onuradunei igortzen zaien hitzarmenean finkatutako baldintzen jarraiki egikaritzen dira (hau da, kopuruaren % 40 ordaintzen da lehendabizi, onarpenaren hitzarmena sinatu ondoren, eta gero % 60 ordaintzen da proiektua amaitu eta gastuak justifikatu ostean) eta justifikatutako gastu errealekiko proportzionalak izango dira, eragiketarako aurreikusitako kostu osoa eta eragiketaren izaera errespetatuz, eta deialdira aurkeztutako txostenean adierazitako eran.

3 – Jarraipena, ebaluazioa eta kontrola

3.1) Esleitutako dirulaguntzen onuradunek hitzarmenean zerrendatutako ziurtagiri guztiak aurkeztu beharko dituzte eta, bereziki, gastuak eta diru-sarrerak zehaztuko dituen egikaritze txostena eta proiektuaren garapenaren deskribapena aurkeztu beharko dituzte. Jazarpen eta justifikazioak (partzialak eta bukaerakoak) modu elektronikoa egin beharko dira. Arau fiskalen arabera, elektronikoki bidalitako dokumentuen originalak 6 urtez gordeak izan beharko dira.

3.2) Programatutako ekintzen exekuzioari modu esanguratsuan eragiten dioten ekintza guztiak berehala Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari jakinarazi beharko zaizkio.

3.3) Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak eskubidea gordetzen du eskura dituen baliabideetan oinarrituta ematen dituen kopuruaren esleipena eta erabilera kontrolatzeko. Onuradunek ezingo diete uko egin kontrol horiei. Arestian deskribatutako betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza deuseztatzea edo kentzea ekarriko du, eta baita Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari ordura arte jasotako kopuruak itzuli beharra ere, eskura izan ditzakeen beste bitarteko batzuen ezarpenari kalterik egin gabe.

4 – Publizitatea

Onuradunek ageriko moduan adierazi beharko dute Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen laguntza euren sustapen- edo informazio-dokumentu guztietan, deialdi honetan egin den eran.

Publizitate-betebehar hau ez betetzeak dirulaguntzaren deuseztapena edo itzulketa ekar dezake.